

OHIKO BATZAR NAGUSIA

- Eguna: 2026-01-31
- Ordua: 11.30
- Lekua: Pagoeta Mendizale Elkartea, Santa Marina 4, Zarautz.
- Bertaratuak: Marina Lertxundi, Odei Ubegun, Su Lim Maeng, Joseba Karrikiri, Ibon Goikoetxea, Txemi de los Dolores, Ainhoa Laffage, Amaia Arruti, Borja Del Estal, Oihana Zuazolazigorragea, Gorka Oroz, Iñaki Zorita, Igor Latasa, Felix López, Ana Gutierrez.

Aukezpen bat egiten da eta bertan zuzendaritza batzordeko kideen zerrenda eta arduraren araberako emailak adierazten dira. Baita bazkide laguntzaileena eta beraien ardurak.

Ondoren gai zerrenda azaltzen da:

1.- 2025eko kontuen onarpena.

Gastuen eta sarreraren desglosea aurkezten da eta diferentzia negatiboa agertzen dela adierazten da. Aurten, beste klubekin alderatzeko, proben prezioak igo direla adierazten da eta horrekin positiboan egotea aurreikusten da.

Dirulaguntzei buruz galdetzen du bakide batek. EMF.GMF eta udaletatik datozela expikatzen da. Puntualki egoten omen dira dirulaguntzak, baina ez direla ezagutzen guretzako baliogarriak direnak. Norbait laguntzeko prest egongo balitz eskertuko litzatekeela adierazten da.

Bazkide batzuk kuota igotzeko proposamena egiten dute, oso merkea dela adieraziz.

Urrengo urterako proposamen bezala usten da.

2.- GOTek 2025an egindako jardueren azalpena.

GOLeko 6 probak, Berastegiko rogaina eta Ipar Ligako proben laburpen bat egiten da.

Liga norte proban egon ziren 2 istripuetan suhiltzaileak etorri behar izan zirela azaltzen da, baina ez zitzaiola GOTeri konturik eskatu. Seguruei buruz azaltzen da, gure probetan, 3 seguru mota ezberdinetako partaideak ditugula :FEDOtik, EMFtik eta eskola kirola barruan daudenak Foru Aldundiko segurutik. Bakoitzaren seguruak tramitazio ezberdina duela istripu kasuan. Alerta dagoen kasutarako, HORIA abixua dela, baina LARANJA alerta izaten dela, beraz, kasu horietan probak suspenditu egin behar dela zehazten da.

3.- GOTek 2026rako aurreikusitako jardueren azalpena.

GOLeko 6 probak eta horietako bat EHKO izango dela eta Bidania-Goiatz-eko Iberogaina azaltzen dira. Foru Aldundiko mendietako sailarekin, parke naturaletan edo natura 2000 espaziotan baimenak lortzeko izaten hari garen arazoak adierazten dira. 2025eko urritik eskaera ofizialak eginda daudela adierazten da, Urdaburu, Pagoeta, Arantzazu eta Hernioko eremuetan probak egiteko.

Pagoetako teknikariak ez digu usten, Agorregi inguruan(Jardin botanikoan) ez bada. Basoan ez garela sartuko, baina Muguril inguruko larreetan ustea eskatu zaio emailaz, baina ez digu erantzun. Ez dugu ofizialki erantzunik ere jaso. Bere ezezkoa, parke naturalen araudiak bidez kanpo ezin dela ibili esaten duelako justifikatzen du.

Arantzazuko teknikariak leku batzuk mugatu dizkigu balizen kokapenerako. Gure trazatuen zain dago.

Urdaburukoak, eman berri du baimena.

Hernio eramaten duen teknikariak ez du erantzunik eman. Berrio deitzekotan geratu da lehendakaria.

Euskal Herriko Orientazio Kopa, Euskal Herriko eta Nafarroako mendi federazioak eskatuta hasiko dela. Diru laguntza emango digute, baina 4 klubek (GOT, COA, COBI eta CDN) artean erabaki zen oraingoz ez lan gehiago hartzea. Beraz, bakoitzaren ligetako proba bat aukeratzea erabaki zen eta horiekin kopa sortu. Reglamendu bat idatzi da, 4en artean adostua, irekia, urtero berrikusi eta aldatu daitekeena. Bazkide batek whasapez adierazi zuena proposatzen da, ibilbideak (Horia, Laranja, Gorria eta Beltza), adinaren arabera mugatzea. Lehen adierazi bezala, 4 klubek artean hartu beharreko erabakia dela eta aurten egingo ez den arren urteetan, denak ados badaude azaldu eta erabaki daitekeela adierazten da.

GOT-ek dituen mapak formatu editablean ustea edo ez eztabaidatzen da. Bazkide baten eskaera dago eta pdf formatuan ustea proposatzen da. Alde kontrajarriak daude, ZOeko kasuan, galdetzen zaio entrenatzaileari ea hezkuntzarako editablea behar duen edo ez eta honek editablea dioen momentutik, eskaera egiten duen bazkideak hezkuntzarako behar duen heinean, honi ere editablean utzi behar zaiola erabakitzen da. Hala ere, lagapen idatzi bat prestatzea beharrezkoa dela adierazten da.

4.- Galdera eta eskaerak.

Ez dago galdera eta eskaerarik.

Amaitutzat geratzen da bilera.

Zarautzen, 2026ko urtarrilaren 31a



Marina Lertxundi Manterola

Lehendakaria



Su Lim Maeng

Idazkaria